



Irati Otxoa  
Aixerrota BHI, 03-04

## AURKIBIDEA

IÑAKI PETXARROMAN .....	3
SARRERA .....	3
<b>KATEAREN BEGIAK</b>	
Gaia .....	4
Kokapena .....	4
Egituraketa .....	4
Baliabideak .....	4
I Antso Azkarra: arrano beltzaren hegal moztua	6
II Pedro Mariskala: Nafarroaren amets odolustua	7
III Rose Iturbide: lapurtarren sufrimendu anonimoa	9
IV Agosti Xaho: Zumalakarregiren arrastoan	10
V Manuel Santa Kruz: bigarren porrot handia	11
VI Fortunato Agirre: Lizarraren hostoa bezala	13
VII Gloria Rekarte: azken begirada	15
IDAZLEARI GUTUNA .....	16
BIBLIOGRAFIA .....	17

## IÑAKI PETXARROMAN

Iñaki Petxarroman Donostian jaio zen, 1973an. Kazetaritzan lizentziatua da, eta azken urteotan Egunkarian egon da lanean, Gizartea sailean.

Liburugintzari dagokionez, duela hiru urte Gaztelako Erresumak, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia bereganatu eta Nafarroa itsas irteerarik gabe utzi zuenetik 800 urte bete zirela aitzaki hartuta, gertakari haiei buruzko azterketa eta gogoeta biltzen zuen *Nafarroa: iragana eta geroa* (Txalaparta, 2000) obra argitaratu zuen, gertaera haien eguneratze politikoa ere eginez.

Hitzaldi edo artikuluetan gogoeta interesgarriak irakurri izan dizkiogu Petxari: «Lurrak galdu eta beste lur batzuetan independentziari eutsi zion Nafarroako Erresumak. Horrek herri desegituratuaren eta zatikatuaren kontzientzian zerikusia izan du inondik ere. Jakina, ez bakarrik horrek, baina horrek ere bai. Foruen ezabatzearen ostean, erantzun gisa jaio zen euskal abertzaletasunaren norabide estrategikoak ere sakondu egin du desegituratze horretan, dudarik ez dagoen horretan. Bizkaitik abiatu zuten abertzaletasun politikoa, adar batetik, enborretik beharrean. Etxe bateko gela hartu zuten etxearen oinordeko politiko gisa, etxea bera balitz bezala. Baina, etxea hor zegoen, hor dago: Nafarroa da».

Aurten, zorionez, euskal irakurleek izanen dute berriro ere Petxarromanen liburu berri batez gozatzeko aukera, euskal historian oinarrituriko narrazio liburua argitaratuko baitu martxoan. 1200. urtetik hasi eta gaur egun arte Euskal Herriaren historian garrantzitsuak izan diren garaiak eta gertaerak hartu eta literatura historikoari heltzen dio atalez atal. Proposamen interesgarria, zinez. Liburu hura Katearen Begiak izenburuaz ezagutzen dugu.

## SARRERA

Obra hau Iñaki Petxarromanek idatzi eta Txalaparta argitaletxeak 2003. urtean argitaratu du. Istorio epikoak kontatzen zaizkigu bertan, Euskal Herriaren bilakaeraren kronologi bat bezalakoa da, gertaera historikoak narratzen ditu, herri honen sentimenduak adieraziz behin eta berriz.

Zazpi istorioz osaturik dago, bakoitza garai ezberdin batean kokaturik, XII. mendetik gaur egunera arte, hainbat bizipen azaltzen zaizkigu, une kritikoen, aldaketa garaien deskribapen bat azken finean.

Garrantzitsuena ez dira pertsonaiak, baizik eta bizitzea egokitu zitzaizen garai historikoak. Beraien begien barrena sentituko dugu adorea, lurralde bat maitatzeko gogoia, tristura, etsipena...

## GAIA

Gaia orokorrean Euskal Herriak urteetan bilatu duen independentzia da, munduari egoera honi buruz berri ematea.

## KOKAPENA

Euskal Herriko makina bat lurralde aipatzen dira liburu osoan zehar, baita atzerriko beste lurralde batzuk ere. Nafarroa da ziur aski gehien agertzen den eskualdea.

## EGITURAKETA

Lineala da, istorioak garaien arabera ordenaturik daude, antzinako garaietatik gaur egunekoetara.

Istorioen barnean ere jarraipen bat dago, hau da, ordena logiko bat .

Agosti Xahoren istorioan ikus daiteke flash-back antzeko bat, frontera gurutzatzen dagoenean bi kontrabandistekin, gaua baserri batean pasatzen du bertoko familiarekin. Hauek beraien bizitzari buruz mintzatzen dira berarekin eta Rose Iturbideren istorioa gogorarazten du.

## BALIBIDEAK

Narrazio historikoak direnez, data asko agertzen dira, deskribapenak oso nabarmenak dira (bai prosopografikoak, pertsona baten deskribapen fisikoa, erretratua, morala eta fisikoa, zein topografikoak, paisaia edo toki baten deskribapenak). Honekin batera enumerazioak ditugu, galdera ikurrak, harridura ikurrak, hiru puntuak (retizentzia), konparaketak, antitesiak, galdera erretorikoak...

*Begiak gorri zituen, eta aurpegia zurbil. Ohikoak zituen poza eta bizi-gogoa neke eta tristura bilakatuak zitzaizkion. Eta amak sufritu egiten zuen umea horrela ikusita. (87)*

*Ezkertiar sutsua zen Xaho ordurako, idealista, ameslari. (97)*

*Gora eta behera, baietz eta ezetz, aurrera eta atzera... (215)*

*—Gerrarako zure dohain eta kemena behar ditugu, errege, Alaren inperioa bertan behera gera ez dadin.*

*—Nire borondatearen aurka atxiki nahi nauzue hemen, nire erresuma arriskuan egonda! (18)*

*Nola ostia da posible, muturraren aurrean jarrita ere ez sinestea gertatzen ari dena? Nola egon daiteke jendea hain itsu? (221)*

Narratzailea orojakilea da, hau da, pertsonaiak ezagutzen ditu, beraien sentimenduak, pentsaera... eta zer gertatuko den ezagutzen du edozein momentutan.

Deskribapenak, pertsonai, gertakizun zein beste ekintza batzuk zehazteko erabiltzen ditu. Elkarrizketak informazioa gehitzen digute batzuetan eta beste batzuetan istorioa hobeto ulertzen laguntzen digu. Barne elkarrizketak ere ematen dira, honek pertsonaia hobeki antzematen laguntzen digu.

Kontaketa landua da, hainbat baliabide erabiltzen ditu, informazio historiko ugari ematen digute, idazkera antolamenduak ordena logiko bat jarraitzen du.

Aipatzekoa da, bitxia, eguraldiari buruz ematen diren deskribapenak, istorio batean ere ez da falta halakorik.

# 1. Antso Azkarra. Arrano beltzaren hegal moztua

## KOKAPENA

XII. mendean kokatzen da, Nafarroako erresuman. Gaztela eta Aragoirekin leian ibili ondoren lurralde anitz galdu zituen euskal erreinuak.

## GAIA

Antso Azkarra erregearen bizipenak.

## ISTORIOA

Tuteran (Nafarroa) Antso erregeak Miramolin (Marokoko erregea) erregearen mezua jasotzen du. Honek laguntza eskatzen dio Gaztela eta Aragoiren aurka gerrara joateko. Mesede horregatik bere alaba Jazziraren eskua eskaintzen dio.

Antsoren arreba Berengela Ricardo Lehoi bihotza erregearekin ezkondua dago, eta arrazoi honegatik Nafarroak laguntza jasotzen du Ingalaterrako erresumatik beharrezkoa duenean.

Gaztela eta Aragoik batera erasotzen diote Nafarroari, Ricardo hil egiten da eta euskal erreinua laguntza barik gelditzen da. Egoera horrela izanda, Marokora abiatzen da, Donostiatik Tangerrera hamabost eguneko bidaian. Baina hara heltzean egoera aldatu egin da, Miramolin erregea herio dago eta bere semea Mahomad boterea du. Honek Antso preso hartzen du bere gerretan parte hartzeaz behartuz. Honez gain ez diote Jazzira ikusten, ezagutzen uzten. Neskak, berriz, gaua pasatzen du berarekin eta hurrengo goizean hil egiten dute Ala jainkoa traizionatzeagatik.

Bitartean bere lurretan Alfontso VIII.aren soldaduek Gasteizerako pasabide sekretua topatzen dute eta hiria hartzen dute. Apezpikua Antsoren bila joaten da, eta Nafarroaren erdia Gaztelari ematea eskatzen dio, egoera oso larria baita.

Bi urteren ondoren libre uzten dute, Europara itzultzen da, eta egoera berriarekin topo egiten du. Alfontso VIII. a gaixotu egiten da eta bere semea Fernando txikiegia da gobernatzeko. Antsori zin egiten dio bere semea erasotzen ez badu kendutako lurrak itzuliko dizkiola, baina, azkenean sendatu egiten da, beraz Antso esku hutsik gelditzen da.

Alfontso VIII.ak berme eske doa mairuen aurka, kristau guztien laguntza behar duela esaten dio eta berriz ere indarrez kendu zizkion eremuak itzuliko dizkiola esanez, Antsok sorostea erabakitzen du.

Tolosako borrokan Antso Mahomad hil nahi du baina ez du bere helburua lortzen honek ihes egiten duelako. Kristauek irabazi eta Europak ospatu egiten du. Gaztelako erregeak ez du hitza betetzen, Antso gaixotu, obsesionatu eta oinordekotza barik hil egiten da.

## PERTSONAIAK

**Antso Azkarra.** Nafarroako erregea garai hartan, bere herria biziki maite zuena.

**Alfontso VIII.a.** Gaztelako erregea, Antsoren etsai sutsua.

**Mahomad Miramolin.** Maroko erregea, pertsona maltzurra, Antsori maite duen emakumea kendu eta bi urtez bahitu berea ez den gerra batean parte hartzeko.

## IRITZIA

*—Errege nire bila etorri zara urrunetik, eta ez zara itzuliko nire maitasunik gabe. Aita hil da, eta nire anaiak egun ez du batere agintzen. Haren aholkulariek ez dute onartuko ni zurekin ezkontzea eta kristau bihurtzea. Zu preso zaude, eta ni ere preso. Aska zaitetz, eta aska nazazu!-xuxurlatu zion emakumeak, ondoko gelatik inor ohar ez zedin. (19)*

Pasarte honek Jaziraren etsipena aditzera ematen du, maite duen gizonarekin ezkontzea debekatu diote, preso sentitzen da ezin dituelako bere benetako grinak, sentimenduak adierazi. Antsorekin gaua pasatzea libre uztea bezala da, azkenean zoriona ezagutzen du.

Antsok hasiera batean ez zuen uste maiteminduko zenik, banaketa batetik baitzetorren, baina, harrigarria, Jazira gustuko du eta berarekin identifikatzen da. Antso ezin da bere herri maitera itzuli, atxiloturik baitago; aske utziko dute mairuen gerran nahikoa lagundu dutela uste dutenean eta berak badaki hori ez dela laster gertatuko.

## 2. PEDRO MARISKALA: Nafarroaren amets odoltsua

### KOKAPENA

Nafarroan gertatzen da, XVI. mendean.

### GAIA

Pedro Mariskalaren bizitzaren azken zatia.

## ISTORIOA

Mosen Boneta (Nafarroako errege den Joan Labritekoaren idazkaria) putetxe batean pozoiturk hiltzen da. Emakume batek kendu dizkion paper guztiak Ultzurrun abadeari ematen dizkio.

Bloisen Nafarroako erregeak eta Luis XII.ak hitzarmen bat adostu dute Gaztelaren aurreko defentsa egiteko. Pedro Nafar mariskala Burgosen dago diplomatikoki egoera lasaitu nahian. Eztabaida bero bat dago hitzarmenaren berri dutenean eta gerra deklaratzeko diote Nafarroari. Hogeita lau orduko ultimatumak ematen diete, bestela Nafarroara indarrez sartuko dira. Nafarroak ez dio erresistentziarik jartzen, bertoko erregea Kataluniara joaten da ihesi.

Fernando erregeak mariskala kartzelaratu, baina gainean zituen soldaduak erosiz ihes egiten du. Nafarroaren aldeko soldaduak Frantzia aldera joaten dira negua pasatzera, baina Albako dukeak jarraitu egiten ditu eta "tranpa" bat jartzen die, dena kenduz. Nafarroako erregeak bere alaba Medicis batekin ezkontzeko adosten du, honela Vatikanorekin konpontzeko aukera izan dezake. Azkenean Medicisek uko egiten dute. Nafarroako erregea Frantziari diru laguntza eske joaten da baina honek ezezkoa ematen dio.

Geroago errekonkista hasten da. Galdu egiten dute euskaldunek, baina herritarrek heroizat hartzen dituzte. Galdeketa eta epaiketa baten ondoren gatibu batzuk aske utzi egiten dituzte. Mariskala, berriz, ez.

Frantzia eta Nafarroaren arteko erlazioa ona da. Lehenengoarena Gaztelarekin, ordea, ez. Gudan daude eta mariskalak bere semearen bisita du Simancas kartzelan. Baimena ematen dio gudan parte hartzeko. Frantziak lurralde ugari konkistatu.

Feliperi, bere laguntzailea, kendu nahi diote mariskalari; hau gaixotu egiten da, baina norbaitek hil egiten du labainkada batez.

## PERTSONAIK

**Pedro Mariskala.** Gizon ausarta eta leiala. Bere lurraldea gogotsu maite zuena.

## IRITZIA

*Ziegako leihotik, zerua besterik ez zuen ikusten aspaldidanik, eta ederra iruditu zitzaion mundua bidai hartan... ikusmena itsutzen zitzaion berehala, argitasunaren indarrez. (55)*

Pasarte honek grazia egin dit filosofian Platonen benetako errealitatea azaltzen duen kobazuloaren adibidearen antza duelako.



Bertan gizaki batzuk txikitatik, horma baten atzean bizi izan dira, eskuak eta hankak loturik, itzalen artean. Egun batean, bat askatuko dute eta kobazulotik aterako dute, hasieran itsutu egingo da, ez du errealitatea den bezalakoa ezagutuko; denboraz eta gauaren iluntasunarekin hobeto ikusiko du.

Ba, Mariskalaren kasua antzekoa da, ziegatik ateratzen dute, hainbat egunetan preso egon da, ilunpean eta kalera ateratzen dutenean, karroan dagoela leihotik begira, gauza bera gertatzen zaio.

### **3. ROSE ITURBIDE: lapurtarren sufrimendu anonimoa**

#### **KOKAPENA**

Lapurdin, XVIII. mendean.

#### **GAIA**

Lapurtarren zapalkuntza, Rose Iturbide neskatilaren bizipenaren bidez.

#### **ISTORIOA**

Jean Iturbe eta Maria ezkondurik daude eta ume baten zain daude. Errekaondo baserrian bizi dira Jeanen aita, Dominique eta arreba, Catherinekin.

Paristik aldaketa ugari datoz, burgesek Asanblada Nazional Eratzailea sortu zutenetik. Lapurdiko biltzarri balioa kendu diete, antolatzeke zuten egitura baliorik gabe gelditu. Kristautasunaren aurkako hotsak entzuten dira.

Jean larrituta dago, ezin du ondo lorik egin. Hurrengo hilabeteetan gutxitan joaten dira herrira. Mezetan Paristik etortzen diren berriak jasotzen dituzte, konstituzioa haien aurka dutela uste dute.

Sarako herrian hainbat atxilotu dituzte protestengatik. Dunonea apaiz berriak arazoak ditu elizan sartzeko eta militarrek etorri behar dira lagun diezaioten. Herritarrek desobedientzia pasibo bat egiten dute. Rose jaiotzen da, bataioa ezkutuan egin behar dute baserrian bertan.

Jakobinoek egoera gogortzen dute, Euskal Herrian lasaitasuna hautsi egiten da. Frantziako armada bere landetan ikusten du, gauen borroka bat dago. Tentsioz beteriko barealdia bizi da. Frantsesa ama hizkuntza bezala hartzerantz derrigortzen dituzte. Osasun publikorako batzordeak sortzen dira. Frantziako gutun batek traidore eta espiotzat hartzen ditu, honek ehundaka herritarren deportazioa ekartzen du.

Rose gaixotu egiten da eta Maria berriz ere haurdun dago. Ihes egiten saiatzen dira baina harrapatu egiten dituzte. Bananduak dira, Maria; Rose eta Catherine ekialderantz eta Jean iparralderantz. Hilabete gogorrak dira guztientzat, Rosentzat batez ere, gero eta gaixoago baitago.

Azkenean, Gobernuak familiak batzeko baimena ematen du, Jeanen ezin jasan bere alabaren egoera, baina dena ezertarako ez, lau urteko neskatxoa hil egiten da.

## PERTSONAIAK

**Rose Iturbide.** Neskatxo gazte, ilegorria. Alaia, zoriontsua.

**Jean Iturbide.** Familia edozein gauzaren gainetik maite duen gizona, gaztea, azkarra eta langilea.

**Maria.** Rosen ama, emakume maitagarria, kezkatia.

## IRITZIA

Ez dakit zer nabarmendu istorio honetan. Esan dezakedana da gehien gustatu zaidanetariko bat dela. Gainera, irakurrita dudan beste liburu bat gogorarazi dit, Ana Frankena hain zuzen ere.

Bera kartzela batean bezala zegoen sarturik, ezin zen ezkutalekutik atera, bere sentimenduak adierazi, etab.

Rosek ez du aukerarik, erbesteratu egin zutn, ez zuen zergatia ulertzen, maite zituen jendea eta gauzetatik banandu zuten... Gainera biak era penagarri batean hiltzen dira, gaixorik, eta dena bihozgabe batzuen erruagatik. Ez zuten bizitza disfrutatzeko astirik, ez da aukerarik ere izan.

## 4. AGOSTI XAHO: Zumalakarregiren arrastoan

### KOKAPENA

Paris eta Nafarroa aldean. Lehenengo karlistaldiaren garaian.

### GAIA

Agosti gaztearen bidaia euskaldunen gerren berri emateko mundu osoari.

## ISTORIOA

Agosti Xaho gazte Zuberotarra Parisen bizi da. Liburu bat idatzi nahi du 1833. urteko karlistaldiei buruz, euskaldunen arima ezagutua izan dadin.

Euskal Herrira itzuli nahi duela kontatzen dienean lagunei, hauek baimen bat eska dezala gomendatzen diote, baina honek ez du jaramonik egiten. Bere laguna den Francois Lotik beste lagun bat du Nafarroan, Pedro Harismendi, Lesakako botikaria.

Bi egunetan Baionan da, euskera maitea berriro entzuten du. Gaua euskaldunen etxean pasatuko du, goizean bi kontrabandistekin muga gurutzatuko du. Gaua baserri batean pasatuko du. Kontrabandistak agurtu ondoren, noraezean txabola batera abiatzen da mutil bati galdetzeko. Bere aita artzainak barrura sartzen gonbidatzen du.

Patxiku karlista boluntarioa aurkezten diote, eta honek Pedro Harismendirenganaino lagunduko dio. Herrira heltzean, bisita turistiko bat egiten dute, herriko tabernan bukatuz. Aste bat igaroko du bertan eta gero Leitzara joaten da Gaztañaga ofizialaren etxera.

Juntakideak kristinoen eraso bat izaten dute. Ezkurrako karlistekin aste osoa pasatuko du, informazio mordoak bilduko du. Karlistek ez dute dudarik Euskal herriak guda irabaziko dutela, Martin Luitzekin lau egun eman, juntako gazteena da. Aste bat barru Lekunberrira joaten dira eta Agosti taldean onartzen dute. Azkenean Zumalakarregi generala ezagutuko du, honek bere ikuspuntua azaldu eta gerra ondorengo proiektuak kontatzen dizkio. Munduari euskaldunen altxamendua nolakoa den benetan azaltzeko eskatzen dio, gero, Agostik, Parisa itzultzeko agindua jasotzen du .

Parisen, gerraren tira-birak egunkarietan jarraitzen ditu. Euskal hiriburuetatik at, beste lurralde guztiak karlisten alde daude. Kolpe gogorra jaso, Zumalakarregi hil da. Handik aurrera gerraren norabidea aldatu egiten da guztiz. Liberalek apurka-apurka lurraldeak bereganatzen doaz, azkenean Bergarako besarkada ematen da, foruen deuseztapena...

Xaho larrituta dago bere lurraldearen egoeragatik eta aditzera ematen du bere idazkietan.

## PERTSONAIAK

**Agosti Xaho.** Ezkertiar sutsua, idealista ameslaria, erromantikoa eta gaztea.

**Zumalakarregi.** Karlisten buruzagia, pertsona oso mirestua eta errespetatua garai horretan.

## IRITZIA

*—Hau ere beltza izanen diagu deskuidatuz gero!*

*—Zu baino zuriagoa ziur baitez, mairu halakoa! —arrapostu zion Xahok, euskara garbian, eta horrek tabernan ziren guztien txaloak, berre algarak eta zalapartak eragin zituen. Euskalduna zela erakutsi ostean, guztien konfiantza bereganatu zuen Xahok berehala. (111)*

Bitxia iruditu zait euskalduna zela demostratu behar izatea, mesfidantza giroa, argi ikusten da bazegoela, baina horrenbesterako?

Egoera komikoa da, karlista mozkorti batzuk taberna batean, ezezagun bat sartu, denek berari erreparatu eta bere erantzuna itxaron. Erantzun gogorra ematen du, eta bistakoa da beraien alde dagoela, beraz arazorik ez, baina zer gertatu ote zen bere euskara hain garbia izan ez balitz?

## 5. MANUEL SANTA KRUZ: bigarren porrot handia

### KOKAPENA

Nafarroa aldean, bigarren karlistaldia eman zenean.

### GAIA

Santa Kruz apaizaren gurutzada Euskal Herria salbatzeagatik.

### ISTORIOA

Santa Kruz apaiza, fusil mordo bat ezkutatu ondoren atxilotua da, zenbait baserritarren laguntzaz ihes egitea lortzen du. Ingurua etsaiz beterik dagoenez iparraldera joaten da, karlistekin bat egitera.

Egoera berria da Euskal Herrian, gazte pila bat batzen ari dira karlisten armadara. Karlistek armak entregatu behar dituzte eta Amorebietako ituna onartu. Santa Kruz berriz ere atxilotzen dute, baina ausardia handiz itzuri egiten du.

Santa Kruzek bere armada sortzen du, hainbat bataila gertatzen dira, emaitza desberdinekin. Nazionalek bere arreba preso hartzen dute eta apaizak kargu altuko liberal bat bahitzen du. Hau libre utziko du bere arreba askatzen dutenean. Bando desberdinen artean gerrate odoltsuak izango dira, duina gazte hil egingo dira. Egoerak okerrera egingo du Santa

Kruzentzat, bere taldekoen artean ez delako guztiz atsegina izango. Arrakastatsu izan ez diren kolpe batzuen ondoren, inguraturik dagoela oharitzen da.

Ingalaterrara erbesteratzen du bere burua, handik laster batean Ameriketara joango da misiolari lanetan.

## PERTSONAIAK

**Santa Kruz.** Apaiza, azkarra eta bere herriarekin konprometitua.

## IRITZIA

*Balkoiko atea ireki, eta berehala salto egin zuen plazara. Min handia hartu zuen oinetan, lau-pabost metroko altueratik egin baitzuen salto. Bere aurkako tiroak saihestu behar izan zituen berehala, gorputzarekin ezker-eskuin eginez. (136)*

Istorioko hau gutxien gustatu zaidanetakoa izan da, aspergarria iruditu zait, denbora osoan gauza bera esaten dute. Honen barnean, gustatu zaidan gauza bakarra bere bigarren ihesaldia izan da. Dibertigarria iruditu zait, akziozko pelikuletan bezala imajinatu dut.

## 6. FORTUNATO AGIRRE: Lizarraren hostoa bezala

### KOKAPENA

Lizarra herriaren merinaldeetan, 1935. urtean, estatu kolpea eta frankismoaren bitartean.

### GAIA

Fortunato Agirreraren azken egunak, Francoren altxamendu faxistaren garaian.

### ISTORIA

Fortunato Agirre Lizarrako alkatea da, Pantaleon Galdeanoren bisita jasotzen du. Hau Iratxeko monastegiko fraide bat da, txikitako laguna. Militarrek altxamendu bat prestatzen ari direla kontatzen dio.

Udaletxeko lagunei komentatzen die fraideak emandako informazioa. Ejertzitoko nagusiak konspiratzen ari direla, eta laster berriz batzartu direla. Etxera heltzean bere emazteak berri pozgarri bat ematen dio: haurdun dago laugarren aldiz.

Fortunatok Lehendakariarekin hitz egiten du abisua emateko, baina honek dena kontrolpean dutela erantzuten dio eta gaia bertan bera uzteko esaten dio. Hurrengo egunetan altxamendu militar bat izango da, Franco buruzagiaren aginduetara. Hori dela eta Fortunatok alde egingo du Lizarratik, bere gurasoen etxera joaten da, baina horrela ere ez du lortzen atxilotua ez izatea. Ziegan denbora luze igaroko du, bere lagunak nola fusilatzen dituzten ikusiko du. Emaztearen bisitak jasotzen ditu kartzelan.

Azkenean, “Gora Euskadi askatuta” oihukatu ondoren zazpi tiroz hilko da.

## PERTSONAIAK

**Fortunato Agirre.** Izaera zentzuduna eta ideologi errepublikarra. Bere herriagatik lan egin zuena.

**Elvira.** Bere emaztea, haurdun, maitagarria eta oso sentikorra.

## IRITZIA

*—Nafarroa guztiz kontrolpean dute. Orain Gipuzkoa aldean hasi dira borrokak, baina, deus gutxi dakigu, hemen Radio Navarra besterik ez dugulako entzuten, eta badakizu informazioa ez dela batere fidagarria... (183)*

Testu zatitxo honek gaur eguneko egoera ere gogorarazten dit. Kanpotarrek euskaldunoi buruzko ikuspegi okerra dute eta hori komunikabideen errua da, hauek nahi dutena, interesatzen zaiena baino ez dutelako erakusten.

Egoera berean daude haiek, gobernuak kontrolatzen du entzuten duten irratia, beraz berriak erdizka egia edo gezurra izan daitezke. Eta nola ziurtatu?

Ez dute modurik, konformatu behar dira horrekin, haien ondorioak atera, agian zuzenarekin eman dutelakoan.

## 7. GLORIA REKARTE: azken begirada

### KOKAPENA

1975-2000 urteen artean, Nafarroan gertatzen da.

### GAIA

Gloria Rekarteren bizitza, *Trantsizio garaia* (frankismoaren amaiera, ETAREN jarduera...).

### ISTORIOA

Gloria Rekarte, Iruñean bizi da Franco diktadorea hiltzean. Denbora horretan zehar bidegabekeria asko burutu dira, ezagunena azken garaian Txiki eta Otaegiren heriotza da.

Jendeak ez daki zer gertatuko den orain, giroa arraroa sumatzen da. Euskal Herriko egoera diferentea da, independentziaz hitz egitera heltzen dira.

Konstituzio berri bat ezartzen da, honek partidu politiko berriak eratzea onartzen du, estatu berri bat... gazteen artean pentsaera desberdinak daude baina guztiak demokraziaren alde adostu behar direla uste dute. Poliziak ez du erreparorik astintzeko manifestaldiak eta mitinak. Horielako batean, Gloriak poliziarengandik ihesi doan ETAKo talde batekin topo egiten du eta haiekin bat egiteko aukera izango du.

Informazio emaile lanak egiteko agintzen diote hasiera batean. Lan hau aspergarria iruditzen zaio, eta kide aktibo bilakatzen da. Hasieran taldekideak ez daude oso ziur, baina amaieran bere helburua lortzen du. Bere lehen bonba jarriko du, honen kausaz negar anitz egongo dira hildakoengatik. Lemoiz zentraleko gatazka biziko du. Urte batera espetxeratu egiten dute. Hainbat kartzelatatik pasatuko da, tratu txarrak jasoko ditu... 2000 urtean libre utziko dute, etxera itzuliko da bere familiagana.

### PERTSONAIK

Gloria Rekarte: gazte “abertzalea” dela esan genezake, herriaren egoerak larritzen du. Heldua denean zentzu falta duela ikus daiteke.

### IRITZIA

—Egoera aldatzen ari da, Gloria —esaten zion Joseluk askotan, konbentziturik.

*—Bai, nik ere hala nahi nuke, baina azaleko aldaketa ugari ikusten dut. Ezer alda ez dadin egindako aldaketa txikiak, alegia.*  
(197)

Elkarrizketa horrek marxismoaren ideiak gogorarazten dizkit, Marxen filosofiak esaten du gizarte bat ulertzeko aurrena bere historian ikertu behar dela. Ekonomia garrantzitsuena dela ere esaten du.

Gizartea bi egituratan antolatuta dagoela defendatzen du. Alde batetik, azpiegitura (non produkzio indarrek produkzio harremanak baldintzatzen dituzte), gizartearen benetako oinarria delarik. Honen gainean eratzen da bigarren egitura, gainegitura deritzona hain zuzen ere.

Hau da Gloriak azaldu nahi dion kontzeptua bere lagunari, nahiz eta azaleko aldakuntza batzuk egin, gizartea ez da benetan aldatuko azpiegiturak aldatzen ez badira.

## IDAZLEARI GUTUNA

Idazle agurgarria,

Duela gutxi zure obra irakurtzeko agindu zidaten klasean eta horrela egin dut. Egia esan, ez da nik normalean irakurtzen ditudanetakoa, niri magia eta misterio gehiago dutenak gustatzen zaizkit.

Irakurtzen hasi nintzen eta egia esan behar badut, ez zitzaidan gehiegi gustatu, honi batu hiztegi azterketa bat, kokapen azterketa eta lana. Lana prestatzeko, istorio bakoitzaren apunteak hartu behar genituen, horrek aspergarriagoa bihurtzen zuen irakurketa, niretzat behintzat. Ez da berdina irakurtzea edo irakurtzen zoazen heinean gertakizun garrantzitsuenak apuntatu behar izatea.

Istorio batzuk beste batzuk baino gogokoago izan ditut, normala denez. Esate baterako, ikaragarri aspergarria iruditu zitzaizkidan bigarren eta bosgarren istorioak. Ez zidaten atentzioa deitu hasiera batetik eta agian horregatik ez nituen interesgarriak topatu. Hirugarrena, adibidez, atsegin handiz irakurri nuen, ez zitzaidan besteak bezain luzea eta motela egin.

Bitxia iruditu zait, eta ohartu nahiz liburu osoan zehar gertatzen dela, eguraldiari garrantzia handia ematen zaiola. Istorio guztietan aipatzen da, gutxienez behin, arraroa da, ilargiaren deskribapena, tenperaturarena, eta abarrena egitea. Idazleek ez dute halakorik egiten beraien obretan, normalean. Kurioso eta dibertigarria iruditu zait detaile hori.



Hau guztia esanda, nire iritzia ontzat hartzea espero dut, ez dudalako aldatzeko asmorik, orokorrean ez dut atsegin, nahiz eta pasadizoren bat dibertigarria, deigarria, entretenigarria begitandu zait. Batez ere bi emakume protagonisten istorioak, agian, gehiago identifikatzen naizelako haiekin. Ze nolako erresistentzia duten egoera latz horiek jasateko, benetan miresgarria.

Besterik gabe, agur bat,

## BIBLIOGRAFIA

*Sinonimoen hiztegi-antonimoduna*. Askoren artean. Adorez 8

*2000 Eskola Hiztegia*. Askoren artean. Elkar

*Eskola-Hiztegia*, irudiduna. Askoren artean. Adorez 5

Batxiler 1. mailan filosofian emandako apunteak

[www.gaztesare.net](http://www.gaztesare.net)

[www.groups.yahoo.com](http://www.groups.yahoo.com)

[www.gara.net](http://www.gara.net)